

Txillardegi

Idazlea

Federiko eta gu

■ Kataluñan harrapatu nau Krutwig adiskidearen heriotzaren berri hitsak. Derio-ko hiletan galdutako, horretara. Eta zenbaitek, niganaino heldutako zurrumurru batzuek adierazi didatenez, nire aldetik berriazko uko bat edo somatu dute. Halakorik ere!...

Orain dela 49 urte (49 bai, gezurra badirudi ere) ezagutu nuen Federiko. Bilbon izan zen, eta berriki hildako Jon Etxaide-ren bitartez egin nuen lotura. Badirudi honek berak nik zerbait kondatzea zilegiago egiten duela.

Euskaltzaindian ezagutu nuen, Erriberako egoitza zahar-eran. Azkue-rekin bateratsu. Eta bestetan ere aitortu izan dudanez, sekulako astindua eman zuen nigan Federikok. Budista zela esan zidan (budista *hinayana*, preseski: erradikalena). Edozer egingo banu, greko klasikoak ikastetik hasi behar nuela. Eta handik egun batzuetara bere etxera eramanduenean, bere *egunkari ezkutua* erakutsi zidan: ispilu bati begira idatzia, eta ispilu bidez bakarrik irakurtzeko modukoa. Leonardo de Vinci-rena bezalaxe.

Handik hilabete batzuetara Martutene-ko gartzelara joan nintzen ni lehenengo aldiz. Eta Federikok ere, bere aldetik, handik urte t'erditsura, politzia atzean zeukala-ta. Bilbotik aldegin behar izan zuen. Eta Frantziara pasa. Hamar bat urteko lehenengo atzerrialdia hasi zuen horrela. 1942an, bere 21 urteetan Azkuek Federiko urgazle izendatu zuenean, euskara eta euskararen mundu osoa, debekatuta zeuden. Nola-hala, eta Hegoaldeari dagokionez, Euskaltzaindia zen euskararen alorrean apur bat egiteko erakunde *toleratu* bakarra. Politziaren begiepean bazen ere.

Urte zail haietan, bi puntuzko zituen Euskaltzaindiak, maila zientifikoz ongi horniturik eta nolabait *separatismo*-tatxarik gabek: Aita Azkue eta Don Julio Urkijo. Berak ziren baradera bakarra. Eta Federikok bazekien. Hots, biok hil ziren ilaran, Erribera kaleko Akademia osoki umezurtz utziz.

1950an, bere 79 urteetan, Urkixo hil zen. Diruduna, euskaltzale porrokatua (inoiz euskaraz mintzatzeko gauza izatera iritsi ez bazen ere). 1951n, Don Resurrección Azkue hil zen. Haseratik *euskaltzainburua* izandakoa. *Coup sur coup*, Federiko bakarrik gelditu zen bere 30 urteetan. Sebero Altube deserriari baitzegoen. Eta Mitxelena, gartzelan luzaz egon eta osasuna erabat galdu ondoren, ez baitzen oraindik gero izango zena izatera heldu. Bere proiektua ez zen makala halere. Euskara batzea, batetik, eta euskara modernizatzea, bestetik. Frankismo betean. Hori bakarrik ez. Erribera-ko bulegoetan antolatzen baitzituen bilera... *bitxiak*. Haietan ezagutu nituen nik, besteak beste, Egileor, Robles Arangiz (aita), Billalabettia deputatu-ohia, eta abar. Federiko alor guztietan batera mogitzen zen. Hori defa-ta, eta hitzaldi bat aitzekia, politzia bila hasi zitzaion 1952an. Eta, ozta-ozta egin zuen ihes, Iparraldera eta Parisa iristeko.

Artean, 1952-1953an, Ekin taldea sortu genuen Bilbon. Federiko ez zen egon, beraz, ETA-ren hastapenean. 1956an, hala ere, eta Parisen Congreso Mundial Vasco delakoa antolatuz zenean, Federikok txosten profetiko bat aurkeztu zuen (*beste bat anitzen artean!*); eta Euskal Herria askatuko bazen, borroka hartuaz ezinbesteko harma zela aldarrikatu zuen. Eskandalu izugarria sortu zen deserriutako politikarient artean. Noski, Erotzat hartu zuten, eta kitto. Baina bai ETAKo zuzendaritzako batzuk, eta bai Gallastegi anaiek (erdi irlandarrak), eta bai Etxebarrieta anaiek ere, baita Paristik Jon Mirandeko erdi-fatxistak, eta bai beste askok ere, garai hartako FLN anti-kolonialisten olatu betean, borroka hartuaren beharra somatu eta defenditu zuten batera.

Gero Alemaniara joan zen, bertako batekin ezkondu (eta seme bat izan; harro baitzegoen nire ustez, Miarrizten halako batez foto bat erakutsi zidan egun hartan bezala), itzultzaile-lana egin zuen Krupp-enean zenbait urtez. Eta, halako batez, Iparraldean agertu zitzaion 1962an. Jadanik ni neu, eta baita beste ETA-kide zahar batzuk ere, han bizi ginelarik.

Baionako Kordeliers karrikan finkatu zuen bere bulegoa (Bordele, Salduba eta Reinola-raino biltzen zituen *Vasconia* berriaren mapaztarrez beteak): Aberritarren Hotel du Château izenekoa ostatu zuen. Mark Légasse anarkista abertzalearekin elkartu zen. Eta Pako Meangolarra-ren laguntza ekonomikoari esker, aurrera jo zuen. Orduantxe (1962) agertu zen *Vasconia* liburua. Madarikazio gutiez markaturik, batez ere gerrilla-estrategia bat proposatzen zuelako, Madrileko gobernuak Parisekoari eskatu zion (baita lortu ere) Federiko *Frantziatik* botatzea. Eta horrela iritsi zen Belgikara. Antwerpen-era, zehazkiago.

Illaran bota gintuzten beste batzuk ere Iparraldetik. Ni neu barne. Eta horrela, 1965ean, Antwerpen-era iritsi nintzen ni ere; eta, Irigarai-rekin batera, Federikoren etxean sartu. Orduan izan nuen nik, politikoki, Federiko-rekin eskuz-esku egin dudana bide puska bakarra burutzeko parada.

Sozial-inperialismoaren kontra egitekotan, *Branka* aldizkaria sortu genuen Chaussée de Neerstalle kaleko nire etxean, Bruselan. Izena Federikok proposatu zuen, hain zuzen.

Garai hartan Federiko *pro-chino* zen, eta harremanak zituen La Haya-ko Anbasadarekin. Bera ETAn sartzean, ni irten egin nintzen ETAtik. Eta, berak bere aldetik, *Branka*-n parte hartzeari utzi zion. Ez ginen batera haserretu. Baina Federikoren irakurketa *politiko* hutsea egitea erokeria litzateke. Federiko *Risorgimento*-ko gizona baitzen, erabat.(...)

Kultura gaitzeko gizona, Federiko intelektual abertzale argi eta ausarta izan da bere bizi guztian barrena. Hautuetan beti batera jokatu ez badugu ere, nik ez dut inoiz somatu Federikorengan azken helburu abertzalea baztertzeko asmorik txikiena. Batzuek ez diote hau sekula barkatuko. ■



Arantxa Hirigoien

Uda ala negu

Uda Leku elkarte orain dela 15 bat urte sortu zen. Hainbat urtetan barna, bilakera handia ezagutu duen elkarte da. Lapurdi, Xiberua eta Baxenafarroko xoko aniztan bere ohanze ttipiak eraiki ditu, udan nahiz neguan. Urteik urtera oporrak euskaraz pasa nahi zituzten haurren kopurua emendatuz joan da. Begiraleek, beren aldetik, lekukoa belaunaldi berri eta gazte bati pasa diote etengabe. Hamabost urtez, bilakera eta aldaketa nagusiak gertatu badira ere, Uda Leku elkartearen xedea beti bera izan da eta da oraindik ere: haur eta gazte euskaldunei denbora libre euskaraz iragaitzeko zerbitzuak eskaini. Eta dudarik gabe, untsasko bete du Uda Leku bere helburua. Udako eta neguko egonaldiak, haurzaindegia, bilguneak, pilota, eskulana, antzerkia, mendia, bizikleta... guzi hori euskaraz.

Bainan baluke oraindik beste xede frango gauzatzeko, ez balitz gaur egungo egoera latzean bizi. Egun, hamabost urteren buruan, Uda Leku elkarte biziki kinka txarrean da. Behin eta berri, botere publikoei galdegin dizkien dirulaguntzak ukatuak izan zaizkio, usu arazoan eta zergatirik gabe. Uda Lekuren egitura eta kudeaketa lana zabaldu den heinean, diru eskasiarengatik elkarteak ez du gehiago bere beharrei erantzuten ahal. *Xirrixita* eta *Kometa* haur aldizkariaren gisara, diru laguntza eskasez desgertuko ote da Uda Leku? Orduan, zer euskal zerbitzu eskainiko diegu gure haurrei? Ikastolatik atera eta zer ingurumetan jostatuko eta heziko dira? Eskualde honetan, Uda Leku elkarteak betetzen duen lekua beharrezko dugu. Euskarazko zerbitzuak eskaintzen dituen elkarte bakarrenetarikoa baita. Alta bada, elkarte honen istorioa eisenplu bat besterik ez da. Egun, Ipar Euskal Herrian euskal elkarte eta egitura ugari bere baitarik atzeman behar du iraun bizitzeko sosa. Araiz, Uda Lekuren arbolak segituko du luzaz oraino sagarren emaitzen.

Kornerra

Mikel Elorza

Epelera

■ Epelerako garaia da. Hartzak lotara, hegaztiak hegoaldera... *Monarca* tximeleten migrazioa benetan bitxia da. Udaberri eta uda Kanadan egin ondoren, milioika tximeletek milaka kilometro egin berri dituzte negua Mexikoko Oyamelgo basoetan igarotzeko. Martxoan Kanadara itzuliko dira (batzuk agian ez, Oyamelgo basoa gero eta txikiagoa baita; ez noski tximeleten hazkundera, zerren eraginez baizik). Gizakia da hozberoaren logikari ihes eginda emigrazioak hegoaldeko iparraldera egiten dituen bakarretakoa. Baina gainontzean animalien antzera. Helburua hobeki bizitzea izanik ere, ez dute denek lortzen. Eta usok Etxalarren bezalaxe, Andaluzia edo Marseillako mugetan makina bat migraztaile erortzen dira.

Frantzia eta Espainiako agintariek Arroxalera egin dute. Marrubiak, esnea, arraina eta are kultura dela ere beti sesioan aritzen diren frantses eta espainolek badakite hainbat gaitan elkarri beroa ematen. Beste batzuek epelak emanez, normalean. Hori ere, natura-ren legea da: indartsuarena.

Mattin

L A P h I T Z A

